

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ayerdi lehendakariordeak Belateko eta Almandozeko tunelak berritzeko lanak ikuskatu ditu

Bisitan egiaztatu ahal izan dute egokitzeko lanak erritmo onean doazela

Ostirala, 2018.eko abuztuak 10

Belateko eta Almandozeko tuneletan segurtasuna egokitzeko eta hobetzeko lanak aurreikusitako epeen arabera burutzen ari dira, eta ibilgailuentzat datozen udazkenean irekitzea espero da, ostiral honetan, Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik azaldu duenez, azpiegitura horiek ikusteko egindako bisitaren ondoren.

Obra Publikoen Zuzendaritza Nagusiko

teknikariek esan dute lehenengo bi hilabeteetako lanak aurreikusitako errendimendua baino handiagokoak izan direla. Hala ere, egiteko dauden lan batzuen konplexutasun teknikoa dela-eta, tunelak irekitzeko eguna zehaztea zaila da.

Uneoro kontuan izanik N-121-A errepidean ibiltzen diren erabiltzaileei eragindako eragozpenak, Nafarroako Gobernuak bere eskura dituen neurri guztiak hartu ditu Belateko eta Almandozeko tunelak ahalik eta denbora gutxien itxita egon daitezen.

Modu horretan, ekainaren 4an lanak hasi zirenetik lehen bi hilabetetan zehar, Belateko bi bazterbide berri egiterakoan, hiru txandatan egin dute lan 24 orduz, astelehenetik larunbat goizera bitarte. Obrako gainerako unitateetan, berriz, langileek bi txandatan egin dute lan, 6:00etatik 22:00etara. Batzuetan, 60 langile aritu dira tunelen barruan lan egiten, eta, ondorioz, lanak zorrotz koordinatu behar izan dira, segurtasun eta eraginkortasun arazoak medio.

Obren barruko hiru proiektuak aldi berean gauzatzeko hasiera batean 7 hilabeteko epea ezarri zen. Une honetan, lanak puntu honetan aurkitzen dira:



Manu Ayerdi Estela Mosoren, Eraikuntza Zerbitzuko (Obra Publikoak) zuzendariaren, eta Yolanda Fernandez, Azpiegitura Berrien Eraikuntza Sekzioko buruaren, azalpenak artatzen.

1. [Belateko tunelean](#):

- Bi bazterbide berri egitea. Jardueraren %75a egina dago. Indusketa eta sostengatze lanak burutu dira, eta iragazgaitzeko xaflak jartzen amaitzen ari dira.

- Likido toxikoak ebakutzeko drainatze-sistema. %80a eginda dago.

- Kableak aldatzea. 65 km-ko kableak eskuz kendu behar dira eta beste bat jarri suaren kontrakoa eta egungo prestazio teknologikoa. Obra-unitate honen %25a gauzatu da.



Obrarako bisita tunelen kanpoaldean.

2. [Almandozeko tunelean](#):

- Likido toxikoen drainatze-sistema. %80a eginda dago.

- Kable-sistema aldatzea. Kasu honetan, 30 km-ko kableak kendu behar dira eta suaren kontrako beste 10 km jarri. Unitatearen %50a eginda dago.

- Arrain-hezur deitzen direnak jartzea uren iturburuaren zona drainatzeko. %100 egina.

Galería de fotos



Perspectiva de una de las bóvedas de los túneles.



Interior de uno de los tubos en Belate.



Revisión de una de las nuevas arquetas construidas.